- 2A eta 3C etxebizitzetako beheko solairuko terrazak lursailaren kotetara egokituko dira; gogorarazten da eraikinak okupatzen ez dituen espazio pribatuetan ez dagoela baimenduta lursailaren profil naturalak nabarmen aldatzea.
- Era berean, gogorarazten da ondoko espazioen arteko itxiturak, hortaz, terraza edo lorategi pribatuen arteko itxiturak, ezin direla bi metro baino altuagoak izan.
- Aintzat hartzen ez diren hegalen azalerak estaldurarik gabe egin behar dira, indarrean dagoen HAPOren 7.1.13 artikuluarekin bat. Era berean, gogorarazten da esekitokien azalera aintzat hartu behar dela eraikitako azalera konputagarria kalkulatzeko orduan.

Kudeaketa Araubidearen (3288/78 ED) 41. artikuluko baldintzak kontuan izan eta bete egin beharko dira.

Eraikuntza dagoen aldearen ingurumen-maila gorde eta sustatze aldera, eta Plan Orokorraren hirigintzako arauen 7.4.2.4.d. artikulua betez, honako hau proposatu da: lurzatian gutxienez 16 zuhaitz landatzea; horietatik 9 espezie hauetakoak izango dira:

- Quercus robur fastigiata
- Fagus sylvatica Darwick
- Ilex aquifolium
- Camelia japonica
- Taxus baccata Fastigiata
- Magnolia grandiflora Gallisonensis
- Arbutus unedo
- Gingko biloba fastigiado
- Carpinus betulus Fastigiata

- Se daptarán las terrazas de planta baja de las viviendas 2A y 3C a las cotas del terreno, recordándose que en los espacios privados no ocupados por la edificación no se permite alterar de forma sustancial los perfiles naturales del terreno.
- Así mismo, se recuerda que los cierres entre colindantes y, por lo tanto, entre terrazas o jardines privados, no podrán superar la altura de dos metros.
- Las superficies no computables de los vuelos deberán ejecutarse sin cubrición alguna, en aplicación del art. 7.1.13 del vigente P.G.O.U. De la misma manera, se recuerda que la superficie de tendederos debe ser computada para el cálculo de la superficie construida computable.

Se tendrán en cuenta las condiciones y el cumplimiento de los requisitos del artículo 41 del Reglamento de Gestión (R.D. 3288/78).

Con objeto de mantener y potenciar el nivel ambiental del área en el que se sitúa la edificación, y en cumplimiento del art. 7.4.2.4.d de las Normas Urbanísticas del Plan General, se propone la plantación mínima de 16 árboles en la parcela, de los que 9 serán de las especies que a continuación se detallan:

- Quercus robur fastigiata.
- Fagus sylvatica Darwick.
- Ilex aquifolium.
- Camelia japonica.
- Taxus baccata Fastigiata.
- Magnolia grandiflora Gallisonensis.
- Arbutus unedo.
- Gingko biloba fastigiado.
- Carpinus betulus Fastigiata

Eraikinaren sestra eta lerrokadurak zuinketa akta egiteko unean egokituko dira, proiektuaren erreferentziako sestrak errespetatuz (+18,00 m eta 20,67 m).

La rasante y alineaciones de la edificación se ajustarán en el momento del acta de replanteo de la misma, respetando las rasantes de referencia del proyecto señaladas en +18,00m y 20,67m.

Obrak egindakoan, lehen erabilerako eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Obra-amaierako ziurtagiria eta likidazioa, teknikari eskudunek sinatuta eta dagokien profesionalen elkargoek ikus-onetsita.
- Eraikinaren argazkiak, koloretan eta ikuspegi guztietatik eginak.
- Eraikitakoa Foru Ogasunean alta eman izanaren ziurtagiria, OHZren ondorioetarako.
- Eraikinaren argazkiak, koloretan eta ikuspegi guztietatik eginak.
- Buletina eta, bidezkoa bada, ziurtagiriak, Telekomunikazioen Azpiegitura Komunei dagozkienak, elkargo ofizial egokiak onetsita (346/2011 Errege Dekretuaren 10. artikuluarekin bat etorriz).
- Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak eta materialak kudeatzeko azken txostena, 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan eta III. eranskinean aipatu diren edukiarekin eta irismenarekin.
- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, lortutako kalitate orokorra adierazita.
- Egiaztatze Erakunde Nazionalak egiaztatutako enpresak kalitate akustikoko helburuak egiaztatzeko entsegu eta neurketa akustikoak burutuko ditu gelen barrualdean.
- Plano topografiko digitalizatua, aldatu diren eta udalarenak diren (edo udalarenak izango diren) elementu guztien behin betiko egoera erakusten duena: hiri altzariak, lorategiak, zoruak

Una vez ejecutadas las obras, junto con la solicitud de Primera Utilización, deberá presentar la siguiente documentación:

- Liquidación y certificado final de las obras, suscritos por los técnicos competentes y visados por los Colegios Profesionales correspondientes.
- Fotografías a color de la edificación desde todos los puntos de vista.
- Justificante de haber dado de alta lo construido en Hacienda Foral a efectos del I.B.I.
- Fotografías a color de la edificación desde todos los puntos de vista.
- Boletín y en su caso certificados referentes a las Infraestructuras Comunes de Telecomunicación, visado por el Colegio Oficial correspondiente (De acuerdo con el R.D. 346/2011, en su artículo 10).
- Informe final de la gestión de residuos y materiales de construcción y demolición, con el contenido y alcance que se señala en el artículo 6 y en el anexo III del Decreto 112/2012.
- Certificado de Eficiencia Energética con la calificación global obtenida.
- Ensayos y mediciones acústicas para la comprobación de los OCAs en el interior de las diferentes estancias, realizado por empresa acreditada por la ENAC.
- Plano topográfico digitalizado del estado final de todos aquellos elementos que han sido modificados y

eta abar; baita lur publikoan zehar doazen ur sareen, saneamenduaren, drainatzearen eta argiztapenaren obra amaierako planoak ere, jabetza publikoa nahiz pribatua izan, plano topografiko hori oinarri izango dutenak. Hori guztia, Azpiegitura eta Zerbitzuen Delineazio Zerbitzuak ezarritako jarraibideekin bat etorriz, eta udal SIG-GISarekin bateragarri diren forma eta moduko ereduekin bat etorriz.

que sean, o vayan a pasar a ser, de titularidad municipal: mobiliario urbano, jardinería, pavimentación…, así como los planos fin de obra de las redes de agua, sasaneamiento, drenaje y alumbrado que discurran por suelo público, ya sean de titularidad privada o pública, que tendrán como base ese mismo plano topográfico. Todo ello acorde con las directrices establecidas por el Servicio de Delineación de Infraestructuras y Servicios y acorde con los modelos de forma y modo compatibles con el SIG-GIS municipal.

OROKORRAK

GENERALES

Urbanizazio proiektuan dauden eta egokitzen zaizkion instalazioak egingo ditu. Behin betiko onespeneko erabakian dauden zuzenketak ere egingo eta osatuko ditu, beharrezkoak badira.

Ejecutará y completará las instalaciones que le correspondan y estén comprendidas en el Proyecto de Urbanización, incluso las correcciones recogidas en el acuerdo de aprobación definitiva, en su caso.

Obrak hasi aurretik, dokumentu bategin bat aurkeztu beharko da (plano bat, zerbitzutan jarri nahi diren ur- eta saneamendu-harguneekin; plano hori Ur eta Saneamenduko Zerbitzu Teknikoak onetsi beharko du).

Previamente al inicio de las obras deberá presentarse en documento refundido (el plano con las acometidas de agua y saneamiento que se prevea poner en servicio, este plano deberá ser aprobado por el Servicio Técnico de Agua y Saneamiento).

Obrak hasi aurretik, udaleko teknikariek onartu beharko dute haien zuinketa.

Antes de iniciar las obras, el replanteo de las mismas deberá de ser aprobado por los técnicos municipales.

Udal sareetako elementuak (kutxatilak, ur-balbulak eta abar) ezin dira maneiatu edo maniobratu, udal arduradunak bertan ez badaude; horretarako, kasu bakoitzean, udal brigadaren zerbitzuburuarekin harremanetan jarri beharko da.

No está autorizado al manejo ni maniobra sin presencia de los encargados municipales de elementos de redes municipales (arquetas, válvulas de agua, etc…), para lo que deberá de ponerse en contacto con el encargado de cada servicio de la brigada municipal en cada caso.

URA ETA SANEAMENDUA

AGUA Y SANEAMIENTO.

Obrak hasi aurretik, plano bat aurkeztu beharko da, zerbitzutan jarri nahi diren ur eta saneamendu harguneekin. Plano hori Ur eta Saneamenduko Zerbitzu Teknikoak onetsi beharko du.

Previamente al inicio de las obras deberá presentarse el plano con las acometidas de agua y saneamiento que se prevean poner en servicio, este plano deberá ser aprobado por el Servicio Técnico de Agua y Saneamiento.

Hornidurari eta saneamenduari dagokienez, 24.2 Iturribarri II egikaritze unitateko urbanizazio obretan horretarako dauden harguneetako bat erabiliko da.

En cuanto al abastecimiento y el saneamiento se utilizarán una de las acometidas contempladas al efecto en las obras de urbanización de la Unidad de Ejecución 24.2 Iturribarri II.

Kontuan izanik euri-uretarako hargune bat, ur beltzetarako hargune bat eta hornidura-hargune bat soilik erabiliko direla, urbanizazio obrek aurreikusita utzi dituzten gainerako harguneak behar bezala anulatuko dira.

Teniendo en cuenta que sólo se utilizará una acometida para aguas pluviales, una para aguas fecales y una para la toma de abastecimiento, el resto de las acometidas que las obras de urbanización han dejado previstas se anularán correctamente.

Beste hustubide bat jarriko da, espaloiaren aurrerapenean jasotzen diren azaleko urak biltzeko xedez; hustubide hori udaleko euri-uren sarera lotuko da.

Se instalará un nuevo sumidero, de forma que queden recogidas las aguas superficiales que queden interceptadas por el nuevo avance de acera, y se acometerá dicho sumidero a la red de aguas pluviales municipal.

Saneamendu eta hornidura sareek eta beraien elementu guztiek udalerriko sekzio tipoak eta xehetasunak bete beharko dituzte.

Las redes de saneamiento y abastecimiento, así como todos los elementos de las mismas, deberán ajustarse a los detalles y secciones tipo municipales.

BIDEAK

VIALIDAD

Dagokion unean 24.2 Iturribarri egikaritze-unitateko obrak hartzea gorabehera, lizentzia honen obrak amaitzen direnean obrak gauzatzearen ondorioz espaloiko eta galtzadako zoruan egin diren narriatze guztiak konpondu beharko dira: kamioiak sartzea, materialak deskargatzea, behin-behineko seinaleak eta abar. Aipatutako zoruak hasieran zeuden baldintza berberetan utzi beharko dira,

Con independencia de la recepción de las obras de urbanización de la U.E 24.2 Iturribarri realizada en su momento, al término de las obras de la presente licencia deberán repararse todos aquellos deterioros que se hayan causado con motivo de su ejecución en el pavimento de la acera y/o calzada: acceso de camiones, descarga de materiales, señalización provisional etc. Los mencionados pavimentos deberán

eta, hortaz, ez da apurtutako baldosarik, mugitutako zintarririk edo fresatutako zoruaren hondakinik egon behar.

Iturgitxi kaletik garajera sartzeko gunearen xehetasunak erakusten dituen planoa aurkeztu beharko da, honako jarraibide hauek kontuan hartuta:

- Dauden eraginak gorabehera, dagoen espaloiaren kotak, eta oinezkoen ibilbideari dagokionez, mantendu egingo dira. Espaloiaren aurrerapena aparkatzeko zonan egin beharko da eta maldak zein kotak doituko dira bertan.
- Ibilgailuen sarbidea granitozko zintarriarekin egin beharko da, 15 x 20 neurrikoa, orain dagoenaren ezaugarri berdinekin, eta udal teknikariekin egindako zuinketari jarraituz.
- Aurrerapena zolatzeko erabiliko diren baldosek espaloian orain daudenen ezaugarri berak izango dituzte; halaber, baldosa-mota desberdinak (laua zein marrazkiduna) banatze aldera udaleko teknikariekin batera in situ egindako zuinketarekin bat etorriz gauzatuko da zoladura.

Obrak hasi aurretik, dokumentazio grafiko zehatza bidali beharko da, espaloiaren eta galtzadaren zoruaren egoera zehazteko. Kalteak konpontzerakoan, dauden materialen berdinak erabili beharko dira, udal xehetasun eta sekzioetan definitutakoarekin bat etorriz. Horien arabera:

ESPALOIA:

- 10 cm-ko lodierako oinarri azpia, zabor legarrezkoa.

de restablecerse a sus condiciones iniciales y por tanto no deberá haber baldosas rotas, bordillos movidos o restos de pavimento fresado.

Deberá presentarse el plano en el que quede detallado el acceso de garaje, C/Iturgitxi, teniendo en cuenta las siguientes indicaciones:

- Con independencia de las afecciones que haya las cotas de la acera existente y en lo que afecta al itinerario peatonal se mantendrán, debiéndose ejecutar el ajuste de pendientes/cotas en la parte del avance de acera correspondiente a la zona de estacionamiento.
- El acceso de vehículos deberá ejecutarse con bordillo de granito de 15x20 de las mismas características que el existente, conforme al replanteo que en su día se haga con los técnicos municipales.
- La pavimentación del avance se llevará a cabo con baldosa de las mismas características a la existente en la acera, acorde con el replanteo que se haga "in situ" con los técnicos municipales para la distribución de los distintos tipos de baldosa: lisa y de dibujo.

Antes de iniciar las obras deberá remitirse la documentación gráfica precisa para determinar el estado y situación del pavimento de la acera y calzada. La reparación de cualquier daño deberá llevarse a cabo con materiales iguales a los existentes y conforme a lo definido en los detalles y secciones municipales según los cuales:

ACERA:

- Sub- base de 10 cms de espesor de zahorra artificial.

• 10 cm-ko lodierako oinarria, hormigoizkoa, HNE-20/B/20.
• Granitozko zintarria, 15x25 cm, alakatua.
• Orain dagoen zoruaren ezaugarri berberak dituen zorua:

Baldosa hidraulikozko zorua (Bilbao motakoa), 30x30x4 cm-koa.
Oinezkoentzako zonetako ehundura zimurreko baldosa 40x40x4 cm-koa izango da.
Galtzada harriek eta lauza granitikoek edota granitozkoek gaur egun dauden materialen neurri eta ezaugarri berberak izango dituzte.

GALTZADA:

20 cm-ko lodierako oinarri azpia, zabor legarrezkoa.
20 cm-ko lodierako oinarria, hormigoizkoa, HM-20/P/25/I.
5 cm-ko lodierako arrodadura-geruza, berotako nahaskin bituminosokoa, AC16 surf 50/70 D.

ARGIZTAPENA

Lur-zatia mugatzen duten kaleetan eta inguruan dauden instalazioak behar bezala kontserbatuko dira, aipatutako argi-puntuak, kanalizazioak eta linea elektrikoak ez kaltetzeko moduan, eta lur-zatien, eraikinen edota etxebizitzen sarbideak baldintza horiek betez kokatuko dira. Instalazioen funtzionamendu eta segurtasun baldintzak eta espazio publikoetako argiztapen baldintzak uneoro bermatuko dira.

Eskaera egileak eta enpresa sustatzaileak jaso beharko dituzte arestian aipatutako baldintzak betetzeko behar diren jarduketak

• Base de 10 cms de espesor de hormigón HNE-20/B/20 .
• Bordillo de granito de 15x25 cms , achaflanado.
• Pavimento de características iguales a las existentes :

La baldosa de la acera hidráulica tipo Bilbao de 30x30x4 cms.
La baldosa de textura rugosa de las zonas peatonales será de 40x40x4 cms.
El adoquín y las losas graníticas y/o de granito serán de las medidas y características materiales iguales al existente.

CALZADA:

Sub- base de 20 cms de espesor de zahorra artificial.
Base de 20 cms de espesor de hormigón HM-20/P/25/I.
Capa de rodadura de mezcla bituminosa en caliente AC 16 surf 50/70 D de 5 cms de

ALUMBRADO

Se conservarán en correctas condiciones las instalaciones existentes en las calles que delimitan la parcela y en zonas próximas, de modo que no sean afectados por las obras los puntos de luz, canalizaciones ni líneas eléctricas, situando los accesos a las parcelas, edificios y/o viviendas de acuerdo con estas premisas y garantizando en todo momento tanto las condiciones de funcionamiento y de seguridad de las instalaciones como las de iluminación de los espacios públicos.

El solicitante y/o empresa promotora deberán considerar la realización de las actuaciones precisas para cumplir las condiciones señaladas anteriormente,

egingo dituztela, aipatutako instalazioko elementuen kokalekua errespetatuz, eta obrak hasi baino lehen beraien oraingo egoera jakiteko behar den dokumentazioa (baita grafikoa ere) bidaliko dute. Horrenbestez, obrak egitean edo obrak amaituta daudenean instalazioetan izandako kalte edo hondatze oro beraiei egotziko zaie.

respetando la ubicación de los elementos de la instalación ya citados, y remitir previamente al comienzo de las obras la documentación (incluso gráfica) precisa para determinar el estado y situación actual de los mismos. Se entiende que todo daño o deterioro detectado en las instalaciones con durante la ejecución o con posterioridad a las obras será imputable a éstas.

Gogorarazi behar da, segurtasun-arrazoiengatik, ezin izango direla inola ere manipulatu ez erabili argiztapen publikoko instalazioetako osagaiak, adibidez finkatze-puntuak, eroapena edo beraienak ez diren elementuen euskarriak.

Debe recordarse que, por razones de seguridad, no podrán manipularse en modo alguno ni utilizarse los diversos elementos de las instalaciones de alumbrado público existentes como puntos de fijación, conducción o soporte de elementos ajenos a ellas.

Gaur egun dauden instalazioek funtzionatzen jarraituko dute egiten diren instalazio berriak martxan jarri arte. Hori, beharrezkoa balitz, kontratistak baliogabetu, deskonektatu eta kendu egingo ditu gero, akatsik eta narriadurarik eragin gabe, udalaren biltegietara eramango ditu eta beharrezko diren errremateak egingo ditu.

Las instalaciones actuales se conservarán en funcionamiento hasta la puesta en servicio de las nuevas ejecutadas, en su caso, procediéndose posteriormente por parte del contratista a su anulación, desconexión, desmontaje y traslado sin falta ni deterioro a los almacenes municipales y a la realización de los remates precisos.

Aurreikusitako jarduketen garapenak ez badu ahalbidetzen gaur egungo instalazioen segurtasuna eta funtzionamendua mantentzea, edota proiektu osoan integratzeko instalazio horiek aldatzea beharrezkoa bada, aurkeztutako dokumentazioan behin-behineko konponbide aukera bat definituko da, aipatutako baldintzak betetzen dituena.

En caso de que el desarrollo de las actuaciones previstas imposibilite mantener la seguridad y el funcionamiento de las instalaciones actuales y/o precise su modificación para integrarlas en el conjunto del proyecto, se definirá en la documentación presentada una solución provisional alternativa a la misma que cumpla con los condicionantes ya indicados.

Saihestuko da tokian lehendik dauden instalazio, altzari edo zerbitzuak ukitzea –hala nola argiteria publikoa–, eta une guztietan ziurtatuko da

Se evitará la afección a instalaciones, mobiliario o servicios ya existentes en el lugar, como es el caso del alumbrado público, posibilitando el acceso en todo

instalazioetako elementuetara iristeko aukera (kutxatilak, kaxak, kableak, argi-puntuak…) beharrezko mantentze-lanak egin ahal izateko, eta lan horiek baliabide mekanikoak erabiltzea eska dezaketela kontuan hartuta.

Azkenik, erabilitako materialek eta obren burutzapenak aplikatu beharreko arauak bete behar dituzte: (1955/2000 ED, 842/2002 ED, 1890/2008 ED, eta abar. Arau horien artean udal eremuko araudia sartzen da (Getxo udalerrian argiztapen publikoko instalazioei aplikatu beharreko baldintzen eta xehetasun teknikoen plegua).

Okerreko interpretaziorik ez egiteko, informazioa besteren bidez oker ez jakinarazteko eta instalazioen zuinketa egiteko, sustatzaileak eta tentsio txikiko instalatzaile baimendunak (instalazioa burutu behar duena) zerbitzuaren ardura duten udal teknikariekin harremanetan jarri behar dute 94.466.01.80 telefono zenbakian.

LOREZAINTZA.

Lorategi edo zuhaitz berriei buruz, edo aurreikusitako obrek ukituko dituztenei buruz, espazio publikoetan daudenak edo erabilera publikorako lagako direnak, ez dituzte obrek ukituko eta udaleko ebakidura-motak eta irizpideak beteko dituzte; horrenbestez, birjartze-fasean, ukituz gero, udaleko teknikariekin jarriko dira harremanetan 94 466 01 80 telefonoan, haiek izan beharko dituzten azken baldintzak adierazteko asmoz. Udalak 24.2 egikaritze unitatean dauzkan lur-zatiak ezin dira erabili obraren fasean, ez materiala pilatzeko, ez bestelako erabileretarako. Beste alde batetik, obra egitean, kontu berezia izan behar da

momento a los elementos (arquetas, cajas, cableado, puntos de luz…) de las instalaciones para realizar las labores de mantenimiento que requieran, considerando que estos trabajos pueden precisar medios mecánicos.

Finalmente, tanto los materiales empleados como la ejecución de las obras deben cumplir la normativa aplicable (RD 1955/2000, RD 842/2002, RD 1890/2008, etc.), en la que se incluye la municipal (Pliego de Condiciones y Detalles Técnicos aplicables a instalaciones de alumbrado público en el municipio de Getxo).

Al objeto de evitar interpretaciones incorrectas y transmisiones erróneas de la información a través de terceras personas y para realizar el replanteo de las instalaciones, el promotor y el Instalador Autorizado en Baja Tensión que vaya a ejecutarlas deberán ponerse en contacto con los Técnicos Municipales responsables del Servicio en el teléfono 94.466.01.80.

JARDINERÍA.

En relación con la jardinería y arbolado de nueva ejecución o a afectar con las obras previstas, situado en espacios públicos o que vayan a ser cedidos a uso público, deberán de no afectarse con motivo de las obras y seguirán los criterios y secciones tipo municipales, por lo que en la fase de reposición caso de afectarse deberán ponerse en contacto con los Técnicos Municipales en el 94 466 01 80 al objeto de marcar las condiciones finales que deberán presentar los mismos. Las parcelas propiedad del Ayuntamiento en el área de la 24.2 no podrán ser usadas durante la fase de obra ni para acopios de material ni para otros usos de la misma.

lurzatiarekin mugakide den lorategi publikoaren eremuan, oso hurbil dagoenez bertan eragin ahal duelako. Errepikatu beharra dago obrak amaitzean lorategi hori leheneratu beharko dela (ureztatze automatikoa, soropila eta zuhaitzak). Obrak egiteko zuhaitzen bat kendu behar izanez gero, udal zerbitzuekin harremanetan jarri beharko dira.

Por otra parte se deberá tener especial cuidado durante la obra en la zona de jardín público lindante con la parcela, por si se afectara debido a su proximidad, reiterando que se deberá reacondicionar una vez terminadas las obras (riego automático, césped y arbolado). En caso de necesitar retirar alguna especie arbórea para acometer las obras se pondrán en contacto previo con los servicios municipales.

Lurrak mugitu edota eraikuntzak eraitsi aurretik, ezinbestekoa da lizentziari dagokion aldean eta inguruetan arratoiak hiltzeko tratamendu intentsibo bat aplikatzea.

Antes de efectuar un movimiento de tierras y/o derribo de edificaciones es requisito indispensable efectuar un tratamiento intensivo de desratización en el área afecta a la correspondiente licencia y sus inmediaciones.

Arratoiak hiltzeko tratamendua gutxienez obrak hasi baino 15 egun lehenago egingo da. Enpresa espezializatu batek egingo du, Izurriteen aurkako Zerbitzuen eta Establezimenduen Erregistro Ofizialean izena emanda dagoena.

El tratamiento de desratización será efectuado con una antelación mínima de 15 días al inicio de las obras y será efectuado por una empresa especializada que deberá estar inscrita en el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Plaguicidas.

Arratoiak hiltzeko tratamendu intentsiboa egin ondoren, enpresa jarduleak tratamenduko ziurtagiria emango du, erabilitako produktuen berri emateko. Produktu horiek Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren Izurriteen aurkako Erregistroan izena emanda egon behar dira. Halaber, erabilitako produktu bolumena eta zein zonatan aplikatu den zehatz-mehatz adierazi behar da.

Tras la realización del tratamiento intensivo de desratización, la empresa actuante emitirá un Certificado de Tratamiento donde se indique el/los productos utilizados que deberán estar inscritos en el Registro de Plaguicidas de la Dirección General de Salud Pública, el volumen empleado y las zonas concretas de aplicación de los mismos.

Tratamenduaren ziurtagiria Ingurumen Arloari bidaliko zaio, eta kopia bat Azpiegitura eta Zerbitzu Arloari, obrak egin aurretik. Atal horri buruzko informazioa behar izanez gero, arlo honetan kontsulta daiteke, 94.466.01.91 / 94.466.01.80 telefono-zenbakietara

El Certificado de Tratamiento será remitido al Área de Medio Ambiente con copia al Área de Infraestructura y servicios con anterioridad a la ejecución de las obras. Cualquier información que se precise en relación con este apartado podrá consultarse en este Área

deituz.

HONDAKINAK ETA GARBIKETA

Obrako ibilgailuak bide publikora irtetean, ez da bide publikoa zikinduko eta ez da segurtasun-arazorik sortuko zikinkeriagatik. Horregatik, gurpilak garbitzeko zona bat jarriko da, bide publikora irtetean ibilgailuek ez dezaten errepidea zikindu. Hondakinen zorrotenak edo eraispen-hondakinak pilatzeko zonak, hondakinak kudeatzeko puntuak eta abarrekoak baldin badaude, haien kokapenak ez du bide publikoa zikinduko eta ez du eraikuntza-hondakinik pilatuko, behar bezala mugatu gabe.

Obrek irauten duten bitartean eta behin obrak amaituta, eremua sakonean garbituko da (erraztatzailea, preziozko ur-mahuka, etab.), obrak jasan dituzten gune publikoen, espaloien, bideen, eta garbiketa-ura jasotzen duten hustubideetako harea-ontzien lehengo garbitasun-maila berreskuratzeko. Garbiketa hori egiteko eguna Udaleko Bilketa eta Garbiketa Sailari jakinaraziko zaio, posta elektronikoko helbide honetara idatziz edo telefono honetara deituz:

eazpiegzerbitzadmin@getxo.eus

94.466.01.80

Azpiegitura eta Zerbitzu Arloari jakinarazi ondoren, garbiketa-zerbitzuaren adjudikazioduna den enpresarekin egin behar den garbiketa baino astebete lehenago, gutxienez, harremanetan jarri beharko da, enpresa

igualmente a través del número de teléfono 94.466.01.91 / 94.466.01.80

RESIDUOS Y LIMPIEZA.

La salida a la vía pública de los vehículos de obra se ejecutará sin afectar en suciedad a la vía pública, sin generar suciedad ni problemas de seguridad derivado por ésta. Por eso, se instalará una zona de lavado de ruedas para que la salida a la vía pública se efectúe sin generar suciedad en la vía pública. En el caso de existencia de bajantes de escombros o zonas de acopio de restos de demolición, puntos de Gestión de residuos, etc… su ubicación no generará suciedad en la vía pública ni acopio de restos de construcción sin delimitar debidamente.

Bien durante las obras como una vez se hayan terminado las obras se procederá a realizar una limpieza profunda (barredora, mangueo agua a presión...) al objeto de recuperar el grado de limpieza de las zonas públicas afectadas por las obras, aceras, viales, así como los areneros de los sumideros donde se recoja el agua de la limpieza. La fecha de la citada limpieza se comunicará al Departamento de Recogida y Limpieza municipal en la siguiente dirección de correo electrónico ó teléfono:

eazpiegzerbitzadmin@getxo.eus

94.466.01.80

Una vez se haya notificado al Área de Infraestructura y Servicios se deberá de contactar al menos, 1 semana antes de la fecha de la limpieza a llevar a cabo con la empresa adjudicataria del servicio de limpieza de cara a coordinar

horrekin garbiketa koordinatu eta ikuskatzeko, eta zona publikoetako garbiketaren eraginkortasuna egiaztatzeko. Harremanetarako telefonoa hau da: 94.464.43.80.

e inspeccionar con ella la citada limpieza y observar la efectividad de la limpieza de las zonas públicas. El teléfono de contacto es el: 94.464.43.80.

Eraikinaren diseinuak, EKTaren arabera, EKT HS2an jasotakoa beteko du, etxeko hiri hondakin solidoak gaika biltzea eta udalaren kudeaketa sistemetan gordetzea errazten duten esparruei dagokienez.

El diseño del edificio acorde con el CTE recogerá lo señalado en el CTE HS2 en lo relativo a recintos que faciliten la recogida selectiva y su depósito en los sistemas municipales de gestión de recogida de RSU de origen doméstico.

BESTE ZERBITZU BATZUK.

OTROS SERVICIOS.

Eraikinak urbanizazio proiektuan hartara aipatzen diren telekomunikazio eta energia harguneekin konektatuko ditu; hala agerrarazi beharko du eraikuntza-proiektuan zein obra-amaieran aurkeztuko dituen planoetan.

Conectará la edificación/es con las acometidas de telecomunicaciones y energía previstas a tal efecto en el proyecto de urbanización, debiendo dejar constancia de ello en los planos a incorporar tanto en el proyecto de construcción como en el final de obra.

Arrazoi horrengatik kaltetzen den zoladura bide publikoan birjartzerakoan, bide arloak ezarritako irizpideak bete beharko dira.

La reposición en vía pública del pavimento afectado por este motivo se realizará conforme a los criterios establecidos por el área de vialidad.

Horretarako egiten den edozein aldaketaz edo bide publikoan eragina duen edozein aldaketaz txostena egin beharko dute Udal Zerbitzu Teknikoek.

Cualquier modificación al respecto o que afecte a la vía pública deberá ser informada previamente por los Servicios Técnicos municipales.

ZUINKETA: Zimendatzeak ezingo dira hasi harik eta udaleko arkitektoak edo beraren ordezkariak tokian bertan adierazi arte zein lerrokadura eta sestrari jarraitu behar zaien, obren zuzendaria bertan dela. Obrako zuzendariak dei egiten dionetik HIRU EGUNEN buruan egin beharko du lan hori.

REPLANTEO: No podrán comenzar las cimentaciones sin que el Arquitecto Municipal o su Delegado señalen sobre el terreno, en presencia del Director Facultativo de las obras, las alineaciones y rasantes que deberán seguirse, a lo que procederá en el término de TRES DÍAS desde que fuera avisado por el Director de las obras.

OBREN LEKUA IXTEA: Obrak hasi aurretik, orubea itxi beharko da, segurtasun azterlanean zehaztutakoarekin bat etorriz.

CIERRE DE LA OBRA: Antes de comenzar las obras se procederá al cierre del solar de acuerdo con lo especificado en el Estudio de

Seguridad.

GARABIAK JARTZEA:

Obran erabili beharreko garabiak jarri aurretik, horiek jartzeko eskaera aurkeztu beharko da. Eskaerak dokumentu hauez osatuta egon beharko du:

a) Obraren kokapenaren planoa.
b) Dorre-garabiak obra barruan izango duen kokapenaren planoa, haren irismenean eta inguruetan dauden oztopoak espresuki adierazita, garabiaren kokapena, biraketa erradioa eta garabi-besoaren ekortzea irudikatuta, eta proiektua egin duen eta obrak zuzentzen dituen arkitektoak sinatuta.
c) Lursailaren erresistentziaren ziurtagiria, teknikari eskudunak emana.
d) Aseguru-poliza, garabiaren funtzionamenduak eta hori obra eremuan egoteak eragin lezakeen edozein istripu barne hartzen duena, eta azken ordainagiriaren kopia.
e) Garabia instalatuta dagoenean, instalazio-etxearen edo teknikari eskudunaren ziurtagiria, garabiaren muntatze egoera ona dela eta ondo funtzionatzen duela egiaztatzeko, emango da.

Garabiaren gakoari heltzen dion gurdiak ezingo du irten obrako orubetik. Besoaren funtzio-area obren hesiek mugatutako espaziotik irtenez gero, lizentzian agerrarazi behar da, eta kasu horretan behar liratekeen prebentzioak hartu. Kontu handia izan behar da elektrizitate-lineak ukitzearekin.

INSTALACIÓN DE GRUAS:

Previamente a la instalación de las grúas que se vayan a emplear en el transcurso de las obras, deberán presentar una solicitud para la instalación de las mismas, que deberá constar de los siguientes documentos:

a) Plano de situación de la obra.
b) Plano de emplazamiento de la grúa torre dentro de la obra, con indicación expresa de los obstáculos existentes en el alcance y en las proximidades, grafiando la ubicación de la grúa, el radio de giro y el área de barrido de la pluma, firmado por el Arquitecto autor del proyecto y director de las obras.
c) Certificado de resistencia del terreno expedido por técnico competente.
d) Póliza de seguro con cobertura total de cualquier género de accidentes que pueda producir el funcionamiento de la grúa y su estancia en la obra, y copia del último recibo.
e) Una vez instalada la grúa se entregará Certificación de la casa instaladora o técnico competente, acreditativa del perfecto estado de montaje y funcionamiento de la grúa.

El carro del que cuelga el gancho de la grúa no deberá rebasar el área del solar de la obra. Si el área de funcionamiento del brazo rebasase el espacio acotado por la valla de las obras, deberá hacerse constar en la licencia, con las prevenciones del caso, habiéndose de tener especial cuidado con los posibles contactos con líneas de conducción de electricidad.

Garabiak garraiatzen dituen elementuak kokatzerakoan, obrako zuzendariak zehaztutako segurtasun-bermea mantenduko da.

Los elementos que trasporte la grúa serán colocados en forma que presenten la necesaria garantía de seguridad a juicio del facultativo de la obra.

Ekainaren 27ko 836/2003 Errege Dekretuak garabiei buruz ezarritakoa zehatz-mehatz beteko da. Dekretu horren bidez, jasotze- eta mantentze-gailuen araudiaren "MIE-AEM-2" jarraibide tekniko osagarri berria onartu zen, obretarako eta bestelako aplikazioetarako dorre-garabien gainekoa.

Se cumplirá exactamente lo dispuesto sobre grúas en el Real Decreto 836/2003, de 27 de junio, por el que se aprueba una nueva instrucción técnica complementaria "MIE-AEM-2" del Reglamento de aparatos de elevación y manutención, referente a grúas torre para obras u otras aplicaciones.

Beste baldintza batzuk:

- Berariaz gogorarazten da eraikitzean derrigorrezkoa dela aurkeztutako planoak, udalak onetsitakoak, zehatz betetzea. Horretarako, udaleko zerbitzu teknikoek aldizkako ikuskapenak egingo dituzte hormigoi-lanak garatu bitartean. Igeltserotza-obrak ezingo dira hasi udalak egiturako obrak ontzat eman arte.
- Edozein aldaketa egiteko, baimena eskatu beharko da obrak egin baino lehen, eta horiek ezingo dira hasi udal-baimena eskuratu arte.

Otras condiciones:

- Se recuerda especialmente la obligación de ejecutar la construcción ajustándose enteramente a los planos presentados y aprobados por el Ayuntamiento. A este efecto se realizarán por los Servicios Técnicos Municipales revisiones periódicas en el transcurso de las obras de hormigón, no pudiendo comenzarse las de albañilería sin el V° B° municipal de las de estructura.
- Todo tipo de modificación se solicitará previamente a la ejecución de las obras, no pudiéndose comenzar éstas sin el correspondiente permiso municipal.

Eskubideak ordaintzearekin batera, eta obrak hasi aurretik, Udal Gordailuzaintzan 178.770,20 € eman beharko dira, edo banku-abala egin, ezarritako baldintzak zorrotz beteko direnaren berme gisa.

Simultáneamente al pago de los derechos y antes de iniciarse las obras, deberá consignar en la Depositaría Municipal, o prestar aval bancario, por importe de 178.770,20 €, que afectará en garantía para responder del estricto cumplimiento de las condiciones que se le imponen.

Eraikuntza eta eraispenen hondakinen kudeaketa eta produkzioa arautzen dituen 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluak xedatutakoari jarraituz,

Asimismo, en cumplimiento del artículo 5 del Decreto 112/2012, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y

12.076,16 euroko fidantza eman beharko da eraikuntza- eta eraispen-hondakinak modu egokian kudeatuko direla bermatzeko.

demolición, deberá constituirse fianza por importe de 12.076,16 € para garantizar la adecuada gestión de los residuos de construcción y demolición.

Inola ere ezingo dira etxebizitzak eta gainerako lokalak erabili, udalak lehen erabilerako lizentzia eman arte.

En ningún caso se podrán utilizar las viviendas y demás locales sin tener concedido el Ayuntamiento la licencia de primera utilización.

Betebehar hori bete ezean, eraikuntza-lizentziaren titularra izango da erantzule.

Será responsable del incumplimiento de esta obligación el titular de la licencia de construcción.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutakoari jarraiki, "ibilgailuen zaintokiaren" jarduera II. B) eranskinean jasota dagoenez sailkatutako jardueraren aldez aurreko jakinarazpenaren mendeko jarduera gisa, behin instalazioak hastapenerako gaituta daudenean, aipatutako jakinarazpena aurkeztu beharko da, dokumentazio honekin batera:

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, al estar la actividad de "Guardería para vehículos" incluida en el Anexo II B) como actividad sometida a comunicación previa de actividad clasificada, una vez que las instalaciones se encuentren habilitadas para su inicio, deberá presentarse la citada comunicación acompañada de la siguiente documentación:

- Jardueraren deskribapena eta jarduerak ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan izan dezakeen eragina murrizteko hartutako neurriak jasotzen dituen memoria.

- Memoria, en la que se incorpore la descripción de la actividad y de las medidas implantadas para minimizar el posible impacto de la actividad en el medio ambiente, las personas o sus bienes.

- Jarduera edota instalazioak eraikuntza-proiektura eta aurkeztutako dokumentazio teknikora egokitzen direla eta ingurumeneko baldintza guztiak, kasuan kasu, dagokion ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotako baldintzak barne, betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, teknikari eskudunak igorritakoa.

- Certificación expedida por persona técnica competente que acredite que la actividad y/o las instalaciones se adecuan al proyecto constructivo y la documentación técnica presentada y que cumple todos los requisitos ambientales, inlcluidos, en su caso, los recogidos en la correspondiente declaración de impacto ambiental.

Udalari obra-zuinketaren akta sinatzeko eskatu beharko zaio,

Se deberá solicitar al Ayuntamiento la firma del Acta de Replanteo de las

gehienez ere hilabeteko epean. Epe hori egikaritze-proiektua ontzat ematen duen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da.

obras en el plazo de un mes como máximo, a contar desde el día siguiente a la notificación del visto bueno al proyecto de ejecución.

Akta hori egiten denetik, obrak burutzeko epea zenbatzen hasiko da. Epe horrek ezingo du 24 hilabete baino luzeago izan. Obrak, gehienez, 3 hilabetean eten ahal izango dira, sustatzaileari bakarrik egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio. Obrak amaitu gabe epe hori igarotzen bada, lizentzia iraungi dela adierazteko izapideak hasiko dira, baldin eta luzapenik eman ez bada.

A partir de este Acta, empezará a contar el plazo para la ejecución de estas obras, que se estima no podrá ser superior a 24 meses. El período máximo en que puede estar interrumpida la ejecución de las obras por causa imputable al promotor será de 3 meses. Transcurrido este plazo sin finalizarse las obras, siempre que no se haya otorgado una prórroga, se iniciarán los trámites para declarar la caducidad de la licencia.

II.- Berariaz jasota geratzen da lizentziak jabetza-eskubidetik salbu eta hirugarren bati kalterik eragin gabe emango direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2 artikuluan ezarritakoa betez.

II.- Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

III.- Interesatuei erabaki hau jakinaraziko zaie, bidezkoak diren errekurtsoak eskainiz.

III.- Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan izanik obra horiei dagokien aurrekontua 3.575.404,00 eurokoa dela.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que el presupuesto presentado correspondiente a dichas obras asciende a la cantidad de 3.575.404,00 €.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakariak bilkura egun bereko goizeko bederatziak eta hogeita hamar minutu direnean eman du bukatutzat. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Presidente levantó la sesión siendo las nueve horas y treinta minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo

honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

cual yo, el Secretario, doy fe.